



BAZTANGO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

2021eko IRAILaren 14ko EZOHICO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURA

SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA Y URGENTE DE 14 DE SEPTIEMBRE DE 2021

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2021eko irailaren 14ko 09:00etan, Baztango Udala Osoko bilkuran bildu da, ezohiko eta premiazko bileran, Xabier Maia Etxeberria jardunetako alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Juan Cruz Iriarte Bañez, Idoia Sobrino Lopez, Oianko Garde Jaunsaras eta Xabier Torres Letona EH-BILDU taldekoak; Maria Isabel Olave Ballarena, Anastasio Nagore Garralda eta Maria Carmen Iribarren Iribarren NAVARRA SUMA taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Ruben Ziganda Sanz eta Joseba Moreno Videgain GEROA BAI taldekoa.

Ez da bertaratu: Joseba Otondo Bikondoa.

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Jardunetako alkatearen aginduz bilkura hasi da.

1.- DEIALDIA PREMIAZKOA IZATEA BERRESTEA.

Nafarroako Toki Entitateko 6/1990 Foru Legearen 78.1 artikuluari eta Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamendua ezartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 79 artikuluari jarraituz, Udalbatzak deialdiaren premiazko izaera aho batez berresten du.

2.- LEKAROZKO ENPRESEN CAMPUSEKO E-1 LURSAILAREN LAGAPENA.

2021/07/22an egindako ohiko osoko bilkuran erabaki zen, udalaren ondarekoa den eta barnean eraikin bat, eliza bat, duen E-1 lursailaren besterengarritasuna **deklaratzea** CEINI, Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra,

En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 09:00 horas del día 14 de septiembre de 2021, se reúne, en sesión extraordinaria y urgente el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente en funciones Xabier Maia Etxeberria y con la asistencia de los siguientes concejales: Juan Cruz Iriarte Bañez, Oianko Garde Jaunsaras, Idoia Sobrino Lopez y Xabier Torres Letona por el grupo EH-BILDU; María Isabel Olave Ballarena, Anastasio Nagore Garralda y María Carmen Iribarren Iribarren por el grupo NAVARRA SUMA; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche por el grupo BAZTANGO EZKERRA; Rubén Ziganda Sanz y Joseba Moreno Videgain por el grupo GEROA BAI.

No asiste: Joseba Otondo Bikondoa

Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.

El alcalde en funciones da comienzo a la sesión.

1.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA DE LA CONVOCATORIA.

En virtud de lo establecido en el artículo 78.1 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de junio, de la Administración Local de Navarra y el artículo 79 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las Entidades locales, por unanimidad se ratifica el carácter urgente de la convocatoria.

2.- CESIÓN DE LA PARCELA E-1 DEL CAMPUS EMPRESARIAL DE LEKAROZ.

Con fecha 22/07/2021 el Pleno en sesión ordinaria acordó declarar la alienabilidad de la parcela E-1 que contiene a su vez una edificación pre-existente, una antigua iglesia, propiedad patrimonial municipal, a fin de poder cederla gratuitamente a CEIN, Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, en

Xabier Maia

dohainik lagatze aldera, 2012/10/10ean onetsitako hirigintza-hitzarmena betetzeko, 2019/12/19an eskritura publikoan bildu zena. Ikusirik jendaurreko epea 2021/04/08ko 77. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez bete dela eta jendaurreko epean inork ez duela alegaziorik aurkeztu, Udalbatzak aho batez **erabaki du**:

1.- **Onartzea** CEINi, *Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra*, 20 urtez doan lagatzea, E-1 lursaila, bere barruan eraikin bat duena, eliza bat, 2012/10/10ean onetsitako hirigintza-hitzarmena betetzeko, 2019/12/19an eskritura publikoan bildu zena. Lagapen horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

a.- Lagapena egiten da baldin eta xedea merkataritza eta industria erabilera bada.

b.- Lurzatiaren jabetza Baztango Udalera itzuliko da erabilera hori akitutakoan.

c.- 2012/10/10ean onetsitako eta 2019/12/19an eskritura publikoan jasota hirigintza-hitzarmenean bildutakoak.

d.- Operazioa eskritura publiko baten bidez burutu beharko da onuradunaren onarpena jasota geldi dadin, eta jabetza-erregistroan sartu beharko da.

e.- Burutze horri dagozkion gastuak onuradunak ordainduko ditu.

2.- Alkateari **ahalmena ematea** dagokion lagapen-hitzarmena sina dezan erakunde onuradunarekin.

3.- Erabaki hau interesdunei **helaraztea**, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

4.- Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean **argitaratzea**.

Jarraian, jardunetako alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 09:05ean. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

cumplimiento del convenio urbanístico aprobado de fecha 10/10/2012 y elevado a escritura pública el 19/12/2019. Visto que se ha cumplido el trámite de información pública mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Navarra nº 192 de 17/08/2021 y que durante el plazo de exposición pública no se han presentado alegaciones, el Pleno por unanimidad acuerda:

1.- **Aprobar** la cesión gratuita por 20 años de la parcela E-1 que contiene a su vez una edificación pre-existente, una antigua iglesia, propiedad patrimonial municipal a CEIN, Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, en cumplimiento del convenio urbanístico aprobado de fecha 10/10/2012 y elevado a escritura pública el 19/12/2019, quedando dicha cesión sometida a las siguientes condiciones:

a.- La cesión queda sujeta a la condición resolutoria de que su destino sea de uso comercial industrial.

b.- La propiedad de la parcela revertirá al Ayuntamiento de Baztan cuando cese este uso.

c.- Las contenidas en el convenio urbanístico aprobado con fecha 10/10/2012 y elevado a escritura pública el 19/12/2019.

d.- La operación deberá formalizarse en escritura pública, en la que se hará constar la aceptación por el beneficiario y deberá inscribirse en el Registro de la Propiedad.

e.- Los gastos correspondientes a esta formalización serán por cuenta del beneficiario.

2.- **Facultar** al alcalde para que suscriba el correspondiente convenio de cesión con la entidad beneficiaria.

3.- **Notificar** el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efecto.

4.- **Publicar** el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Navarra.

Seguidamente, por el Sr. alcalde en funciones se levanta la sesión, siendo las 09:05 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.

JARDUNETAKO ALKATEA
EL ALCALDE EN FUNCIONES



IDAZKARIA
EL SECRETARIO